

ESTATUTUAK

I. kapitulua

DISPOSIZIO OROKORRAK

1. Artikulua. - Izena eta nortasuna

Nortasun juridiko propioz eta bere bazkideengandik berezirik, Elhuyar Kultur Elkartea sortzen da, kapitulu honetan azaltzen diren eta Estatutu hauen arabera erregulatu beharko duten helburu ekin.

Estatutuek gogoan izan ez dutenarentzat, 1964.eko Abenduaren 24eko Legearen eta honekin bat datozen eta hau osatzen duten

beste lege-disposizioen arabera koak izango dira helburuok.

Elkartearen izena Elhuyar da.

2. Artikulua. - Egoitza

Elhuyar Kultur Elkartearen egoitza, Donostia (Gipuzkoa)-ko Garibai kaleko 23 zbk.a, 3.a izango da.

Batzarre Zuzentzailearen erabakiz eta Estatutu hauek aldatu beharrik gabe, alda daiteke Elhuyar Kultur Elkartearen egoitza, Donostiako hiriaren barnean.

3. Artikulua. - Elkaratearen helburuak

Elhuyar Kultur Elkarateak, honako helburuok lortzeko ekintzak eragitea eta antolatzea du xedetzat:

- a) Euskara, zientziaren eta teknikaaren arloan bultzatzea eta garatzea.
- b) Antzeko kultur eta irakaskuntza helburuak dituzten erakundeekin elkarlanean ihardutea.
- c) Zientzia, teknika, irakaskuntza eta ikerkuntzaren arloan euskarara garatzeko ekintzat aurrera eraman ditzaketen pertsona edo taldeei laguntza eta orientazioa ematea.
- d) Bere kabuz, nahiz beste pertsona batzuren zerbitzuez baliatuz Elkarateak bere helburuak lortzeko egokitzat hartzen dituen lanak argitaratzea.
- e) Euskararen aitzinapen eta garapenerako, Zientzia, ikerkuntza, irakaskuntza eta antzeko gaietarako buruzko ikastaro eta mintegiak antolatzea edo/eta haietan parte hartzea.
- f) Aipatutakoen antzekoak edo osagarriak diren edo haiekin lotuta dauden beste ekintza guztiak.

4. Artikulua. - Iraupena, lurralde-esparrua eta izakera.

Elhuyar Kultur Elkarateak iraupen mugagabea izango du, Estatutu hauen V. kapituluaren kontutuan izan diren arrazoiegatiko disoluzio posiblea salbu.

Elkaratearen ekintza, Gipuzkoako probintzira hedatuko da, salbuesenez eta bere helburuak betetzeko, behar diren eskakizun administratiboak bete ondoren, bere esparrua beste leku batzutarara heda badezake ere, antzeko eginkizun soziala duten beste Kultur elkarte batzurekin elkartuz, federatuz edo bat eginez.

Sortzen den Elkarateak ez du lukuru-asmorik.

II. kapitulua

BAZKIDEEN KONDIZIOA, HAUEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ETA ONESPENERAKO ETA BAZKIDETASUNA GALTZEKO PROZEDURAK

5. Artikulua. - Adinarora iritxi eta obratzeko legezko ahalmenez Batzarre Zuzentzaileari sarrera eskatu eta Estatutu hauetan ezartzen diren

eskakizunak betetzen dituzten per
tsona naturalak izango dira Elhu
yar Kultur Elkartearen bazkide.
Sartzeko eskabidea, Elkarteko bi
bazkideren sinadurek bermatu be-
harko dute.

6. Artikulua. - Batzarre Zuzentzai
leari dagokio El-
kartean sartzeko eskabidea ones-
tea. Bazkidearen sarrerak, Estatu-
tuak onartzea eta Elhuyar Kultur
Elkartearen helburuei atxekitzea
suposatzen ditu.

7. Artikulua. - Bazkideen artean ez
da, izan ditzaketen
kargu desberdinetatik eratorritak
koez landa, beste inolako bereiz-
kuntzarik eta bazkide guztiek es-
kubide eta betebeharrak berberak
izango dituzte.

8. Artikulua. - Bazkideen eskubideak

- a) Batzarre Orokorretan bozez eta botoz parte hartzea.
- b) Elkartearen kargu zuzentzaileak hautatzea eta hauetarako hautatuak izatea, Estatu hau-
en arabera.
- c) Elkartearen martxaz eta honen ekintzez informatuta egotea, erabakitzen diren komunikabi-
deen bitartez.
- d) Elkarrekin prestu litzakeen Kul

tur zerbitzuez gozatzea eta antola litzakeen tankera horretako ekintzetan parte har-
tzea.

- e) Elkartearikiko interesak ira-
dokitzen dizkien eta bere us-
tez Batzarre Orokorrean tra-
tatu beharrezkoak diren ini-
ziatibak edo gaiak Batzarre
Zuzentzaileari proposatzea.
- f) Nahi dutenean Elkarrekin uztea.
- g) Batzarre Orokorrean erabakitzen dituen beste guztiak.

10. Artikulua. - Bazkide-izakera
arrazoi hauegatik
gal daiteke:

- a) Heriotzagatik.
- b) Eskribuz Batzarre Zuzentzaileari aditzera emandako boron-
darekin, Elkartearikiko betebeh-
rarrak bete ondoren.
- c) Estatuuekiko arau-hauste larri batengatik egozketaz.
- d) Kuota ez ordaintzeagatik, nolaz eta Batzarre Zuzentzaileak kon-
trako erabakirik hartzen ez
duen.

11. Artikulua. - Batzarre Zuzentzai
leak erabakiko du
Bazkidetasunaren galera, aurreko
artikuluari aipatzen den lehenengo
kasuan ezik. Erabaki horren aurka,
jo lezake bazkide egotziak Batza

rrre Orokorrearengana,eskribuz,egoz
ketaren berri ematen zaionetik hi
labete barru.

III.kapitulua

ELHUYAR ELKARTEAREN GOBERNU-OR-
GANOEZ

12.Artikulua.- Honako hauek dira
Elhuyar Elkartea-
ren gobernu-organoak:

- a) Bazkideen Batzarre Orokorra.
- b) Batzarre Zuzentzailea.
- c) Lehendakaria.

13.Artikulua.- Batzarre Orokorra,
Elkaratearen orga-
no gorena da eta beraz,gai da El
karatearen helburuetan eta barne-
-erregimenean eragina duten ara-
zoak eztabaidatzeko eta ebazteko.

Eskubidea du erakundearen ekin
tzak eta martxa ezagutzeko eta
horietaz informatuta egoteko eta
baita haren beste organoen eraba
ki eta gestioen berri izateko ere.

14.Artikulua.- Deitutakoan biltzen
diren bazkide guz
tiek osatuko dute Batzarre Oroko-
rra,nahiz pertsonalki joanez,na
hiz beste bazkide batzuri emanda
-348-

ko ordezkariaren bidez.Lehen-
dakariari zuzendutako gutunez
emango da ordezkari-tza eta ezein
bazkidek ez lezake beste hiru
bazkide baino gehiagoren ordezkari-
karitzarik izan.

15.Artikulua.- Lehen deian bil-
kura egiteko,gu-
tzienez bazkideen erdiak eta bat
gehiago bildu beharko dute.

Bildutako bazkideen kopurua
edozein dela ere,egin daiteke
bigarren deian.

Bi deion artean orduerdiko
tarteak iragan beharko du gutxi-
enez.

Bi kasuetan erabakiak bete
beharrekoak izango dira,are bil-
du ez diren bazkideentzat ere.

16.Artikulua.- Gutxienez 10 egun
lehenagotik egin
beharko da Batzarre Orokorrerako
deia,Batzarre Zuzentzaileak ego-
ki deritzon prozeduraz.

Deian espresuki aipatuko da
tratatu-tuko diren gaien ordena.

17.Artikulua.- Bazkideen Batza-
rre orokorra hona
ko era hauetan bilduko da:

- a) Bilkura arruntean,urtean behin,

urtearen bigarren seihilekoan.

- b) Bilkura berezian, Batzarre Zuzentzaileak horrela erabakitzen duenean edo Elhuyar Kultur Elkartearen bazkide gutxienez 20%a gutxienez ordezkatzen duen bazkide-kopuru batek eskatzen duenean.

Batzar Orokorra deitzeko eskabidea, Elkartearen Lehendakariari zuzenduko zaio, eskatzen duten bazkideek sinatu rik.

18. Artikulua. - Ahalmen hauek dagozkio Batzarre Orokor arruntari:

- a) Batzarre Zuzentzailearen eta hau osatzen dutenen jokabidea aztertzea, Estatutu hauetan izendatzen zaizkien eginkizunen konplimenduari dagokionez.
- b) Batzarre Zuzentzaileak aurkeztuko dituen Elhuyar Kultur Elkartearen urteko Oroitzapena, Balantzeak eta presupostuak ezagutzea eta, egoki balitz, ontzat ematea.
- c) Bazkideek ordaindu beharko duten gutxienerako kuota erabakitzea.
- d) Sarrera-onespena ukatzen edo egozketaren bat erabakitzen duenean, interesatuak aurkeztu-

tako eskabideaz erabakia hartzea.

- e) Elkartearen martxa onarekin zerikusirik izan lezakeen beste edozein arazo ebaztea.

19. Artikulua. - Dei bereziz bildu tako Batzarre Orokorri ahalmen hauek dagozkio.

- a) Estatutu-aldaketak eta helburu-hedapenak erabakitzea.
- b) Batzarre Zuzentzailea hautatzea.
- c) Elhuyar Kultur Elkartearen diseinua eta honen ondasunen norakoa erabakitzea.
- d) Elkartearen ondasunak dispostatzea eta inorenganatzea.
- e) Administrazioari baliagarritasun publikoa ezagu diezaion eskatzea eta antzeko helburu sozialeko beste kultur elkarrekin bateratzea, federatzea edo elkartzea.

20. Artikulua. - Lehendakariaren hautapena bazkideek egingo dute Batzarre Orokor Berezian.

21. Artikulua. - Batzarre Orokorren erabakiak bildu edo ordezkatuen boto-gehienez hartuko dira, bazkideen boto b

na dagozkielarik. Hainbanapenik balitz, Lehendakariaren botoak erabakiko luke.

22. Artikulua.- Hala eta guztiz ere, ondoren aipatzen diren erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da Batzarre Orokor Berezian bildutako edo ordezkaturako bazkideen bi herenen aldeko botoa:

- a) Ondasunak disposatzea edo inoren ganatzea.
- b) Batzarre Zuzentzailearen eta bere Lehendakariaren izendapena.
- c) Baliagarritasun publikoa ezagutzeko eskabidea.
- d) Federazio bat osatzeko edo beste elkarte batzuekin elkartzeko edo bateratzeko erabakia.
- e) Estatutu-aldaketak.
- f) Elkartearen disoluzioa.

23. Artikulua.- Batzarre Orokorrena ere izango den Lehendakariak eta lau bokalak osatuko dute Batzarre Zuzentzailea.

Batzarre Zuzentzailea da Elhuyar Kultur Elkartearen organo bateratzea.

Bere baitan Lehendakari-ordebat eta Idazkari bat hautatuko ditu Batzarre Zuzentzaileak eta hauek kargu berberak izango dituzte Batzarre Orokorrean ere. Kargu zuzentzaile guztiak ordaingabeak izango dira, 3 urteko iraupena izango dute eta kargudunak berrautatuak izan daitezke.

24. Artikulua.- 10. artikuluan aipatzen diren arrazoiengatik bazkideetasunaren galerak, Batzarre Zuzentzailean izan lezaken karguarena suposatuko luke nolana dela ere.

25. Artikulua.- Batzarre Orokorra izendatzen dizkion aginpideak eta ondoren aipatzen direnak dagozkie Batzarre Zuzentzaileari:

- a) Elkartea zuzentzea eta administrazioa horretarako egoki ditzuten arauak aginduz.
- b) Ondasunak eskuratzea eta disposatzea eta obrak eta zerbitzuak kontratatzea.
- c) Bazkide berriak onartzea, beraien borondatezko uztea onartzea eta merezi dutenei bazkideetasuna galaraztea.
- d) Bazkideek ordaindu beharko duten kuota Batzarre Orokorri proposatzea.

- e) Elkaratearen diruak eta ondasunak administartzeara eta hauek en kontu xeheak urtero eta Batzarre Orokorrak galdetzen dituenean ematea.
- f) Bazkideek aurkeztutako proposamenduak bideratzea, Batzarre Orokorrak eztabaida ditzan.
- g) Urtero Oroitzapena idaztea eta Balantzea eta sarrera-gastuen presupostuak Batzarre Orokorri aurkeztea, honek azter eta onar ditzan.
- h) Elkaratearen pertsonal ordaindua izendatzea eta kentzea, horrelakorik balitz eta zerbitzu pertsonalak edo profesionalek kontratatzea, helburu sozialek betetzeko behar diren neurrian eta onartutako presupostuaren arabera.
- i) Bazkide guztiek Estatutu hauek fidelki konpliditzaten arduratzea.
- j) Lehendakariari edo egokiderritzen pertsonen ahalmenak ordezkatzeara.
- k) Ekintza-mota orotan Elkartea ofizialki ordezkatzeara, berez edo horretarako izendatutako pertsonaz.
- l) Elkaratearen martxa onak eskalazakeen beste edozein, Batzarre Orokorrentzat edo Lehendakariarentzat espresuki erre-

serbatuta ez baleude eta haren lehen bilkuran eman beharko luke bere erabakien eta ekintzen berri.

26. Artikulua. - Gutxienez hiru hilabetean behin bilduko da, Batzarre Zuzentzailea bere Lehendakariak deituta eta honek beharrezko ikusten duen guztitan edo bere batzarkideen erdiak eta batek gehiagok eskatzen dutenetan.

Bitarteko egokiz iragarri beharko da deia eta bost egun aurretik gutxienez.

Gehiengoz hartuko dira Batzarre Zuzentzailearen erabakiak eta hainbanapenak Batzarre Zuzentzailearen buru izatea dagokionaren kalitate-botoaz erabakiko dira.

Batzarrea baliozki osa dadin, batzarkideen erdiak eta bat gehiago eta Lehendakariak edo Lehendakariordeak bildu beharko dute gutxienez.

Batzarre Zuzentzailearen bilkuretara joan daitezke, bozaz baina botorik gabe, haren bere eginkizunak hobeto betetzeko in teresgarri derritzen pertsona guztiak.

27. Artikulua. - Lehendakariak El
kartera legez ordez
katuko du eta honen martxaren ar
duradun izango da.

Gainera, beste eginkizun hauek
dagozkio:

- a) Batzarre Orokorrerako eta Ba-
tzarre Zuzentzaileerako deiak
egitea, haien lehendakari iza
tea eta bilkura horietako gai
en ordena ezartzea.
- b) Batzarre Orokorraren eta Ba-
tzarre Zuzentzailearen bilkura
-aktak bere sinaduraz onartu-
ko ditu.
- c) Elkartearen gestio ekonomikoa,
kontabilitateaz, aktâ-liburuez,
Bazkide-erregistroaz eta Ba-
tzarre Orokorretan eta Batza-
rre Zuzentzaileetan iragarri-
tako jokabideak bete arazteaz,
arduratuko da.
- d) Elkartearantz lan egiten du-
ten pertsonak izendatu eta
kenduko ditu.
- e) Gobernu-organoek bere eskue-
tan uzten dituzten beste egin-
kizun guztiak beteko ditu.

28. Artikulua. - Honako eginkizun
hauek dagozkio Le
hendakariordeari:

- a) Lehendakariaren ordezkari iza
tea heriotzez, erialdiz edo di

misioz hura faltako balitz.

- b) Lehendakariak espresuki be-
re eskuetan uzten dituen egin
kizun guztiak betetzea.

IV. kapitulua

ONDARE, ONDASUN ETA PRESUPOSTUEZ

29. Artikulua. - Elhuyar Kultur
Elkarteak ez du
sortze-ondarerik.

30. Artikulua. - Estatutu hauen 3.
artikuluak iragar
tzen dituen helburu sozialak be
tetzearren, honako sarjera hauen
bidez lortutako ondasunak erabi-
liko ditu:

- a) Bere bazkideen kuotak. Batza-
rre Zuzentzaileak urteko ku
ta minimo bat izendatuko du,
bazkideek ordain dezaten, hau-
ek borondatez kuota minimo
hori baino handiagoko kanti-
tateak ordaintzeko konprome-
zua har badezakete ere.
- b) Bere helburuak betetzeko, zile
giro lortzen dituen ekarpen
subentzio, emaitza, jarauntzi
eta ondoregoak.
- c) Bere ondasunen etekin, errenta
eta interesak.
- d) Garatzen dituen kultur zerbi-

tzuen ekoizpena, bere argitalpen-lanaren bidezkoa edo ta legozkiokeen ondarezko beste sarrerena.

31. Artikulua. - Elkartek, berez, eskura eta eduki litzake era guztietako ondasunak eta eskubideak eta iragarritako helburutarako eta honetarako hartutako betebeharrak zilegiak konplitzeko bakarrik erabili litzake.

32. Artikulua. - Elkarrearen urteko kontuen ixterako, urte bakoitzeko abenduaren 31. a hartuko da.

33. Artikulua. - Urteko presuposua ez da 10 milioi baino handiagokoa izango baina urteko bizimodu-kostuak izaten duen gehitzearen arabera, handiago daiteke.

v. kapitulua

ELHUYAR KULTUR ELKARTEAREN DISOLUZIOAZ FTA LIKIDAZIOAZ

34. Artikulua. - Honako arrazoi hauetatikoren baten gatik disolbatuko da Elhuyar Kultur Elkartea:

- a) Estatutu hauek adierazten dutenaren arabera, Batzarre orokorraren bi herenen erabakiz
- b) Legeak aurrikusten dituen beste kasuetan

35. Artikulua. - Disoluzioa iritxi-ko balitz, Batzarre Orokorrek 4 bazkidek osatutako Batzorde bar izendatuko luke inbentarioa egiteko eta Elkarrearen eskubideak eta betebeharrak baloratzeko eta likidatzeko.

Likidazio horren hondarra, euskal kulturarekin zerikusia duten ekintzatan edo ta Batzarre Orokorrek erabakitzen dituenetan erabili liko da.

DISPOSIZIO IRAGANKORRA

1. Elhuyar Kultur Elkartea sortutzat emango da bere izaterako eskakizun guztiak betetzen direneko biharamunetik.

Elkartea sortu ondoren bilduko da Lehenengo Batzarre Orokorra. Batzarre Orokor honetan sortu eta izendatuko dira gobernu-organoak.